



“ORENBENTA-ATXURIA” PR-NA 15

Luzera:10.800km

Desnibela: 550mt

Zailtasuna: 2

Denbora: 3 ordu

Argarata-Basate erreken arroila inguratzen duen ibilbide zirkularra, bizkarrez bizkar, Etxalarko Usategiak bisitatu eta Atxuria mendira igotzeko aukera ematen duena. OHARRA: urrian, uso pasean, Nabarlatsako tartea itxia egoten da eta Lakaingaineko lepotik desbideratu behar da.

IBILBIDEA

- 0,000 km: **ETXALAR** (100m), Antsolokueta auzoa. Bertako karrika zeharkatu.
- 0, 300 km: Antsolokueta, bidegurutzea. Eskuinetik, itzultzeko bidea; ezkerretara jo eta, 50 metrora, karrika utzi eta berriz ezkerreko bidexkatik igo, bizkarreko malda pikotik. Norabide zuzenari eutsi bidegurutze guztietan.
- 1,425 km: Perugorrireneko Borda baserria (250m, mendi bizkarraren gainean eta 200m lehenago eskuinetik borda baterako bidea pasa eta gero). Bide asfaltatua eta ikuspegi zabalak.
- 2,050 km: Lakain-Apezborroko bide asfaltatua, Arrineko Borda baserria eskuinean pasa eta gero. Asfaltoa gurutzatu eta zuzen segi, haritz zaharren artetik, belagiak eta basoa mugatzen dituen bizkarreko bidetik.
- 2,750 km: Azkeneko baserri eta bordak pasa eta basoan sartuko gara, eskuinean hagin bat ageri delarik. Bidea bitan banatzen da: Zuzen segi, bidea gero pikoagoa eta estuagoa egiten da, tarteka bidexka itxura hartuz eta Lakaingaina mendiko amildegia ipar aldetik inguratuz.
- 3,060 km: Lakaingaineko lepoa (410m), mendi bizkarrean (Oharra: urrian, uso pasean, bide honen eskuinaldetik jarraitu behar da Nabarlatsaraino, 4,340 P.K.an). Bizkarreko bidetik jarraitu, Ipar-ekialderantz.
- 3,455 km: Lakaingo lepoa (475m). Lizaietatik datorren pista zabalarekin bat egiten dugu. Pistatik jarraitu, norabidea aldatu gabe.
- 4,165 km: **NABARLATSAKO LEPOA** (474m), ehiztari borda eta iturri bat pasa eta gero. 50. mugarrria. Bidea bitan banatzen da: Mendi bizkarra utzi eta eskuinera jaitsi, baso aldera, iralekua zeharkatzen duen bidetik.
- 4,340 km: Haritzia eta bidegurutzea. Ezkerretik jaitsi, hariztian barna.
- 4,805 km: Basate-Argaratako erreka (350m); zubitik zeharkatu eta maldan gora eskuinetik, basoan barna.
- 5,015 km: Maritoneko Borda baserria. Ezkerretara jo, bide zabaletik; 100 m aurrerago, Irisarrigaraia baserria pasa eta luberrien artean jarraituko dugu.
- 5,685 km: Orenbentako pista. Eskuinetik segi, belagien artean.
- 5,850 km: **ORENBENTAKO Atsedene-gunea** (445m) eta iturria. Ezkerreko pistatik igo, Zentinelaren mendiko magalean.
- 6,645 km: Ardi borda (505m), ibilbidearen punturik altuenean. Eskuinetara jo. Kilometro batera, baserri-borda baten ondotik pasa eta maldan beheara hasiko da.
- 8,100 km: Eskuinetik Mendiondoko Borda baserriatik datorren bidea sartzen zaigu. Norabideari eutsi.
- 8,725 km: Artzain borda pasa. Zuzen jarraitu, bizkarreko bide zabaletik.
- 9,325 km: Bidea bitan banatzen da. Eskuinetara egin, pista harritsutik eta erreka bat zeharkatuz.
- 9,590 km: Pistarekin bat egin eta zuzen jarraitu. Metro batzuetara, Gartxineko Borda baserriaren ondotik pasatuko gara.
- 9,680 km: Bihurgune itxia eta bidea bitan banatzen da. Zuzen segi, bizkarreko bidetik. Ibilbidea gero estuagoa egiten da, hurrizta nagusi den basoan sartu eta bidexka bihurtuz.
- 10,280 km: Zugarramurdiko bide zaharra. Bertatik jarraitu, zuzen, metro batzuetara Argaratako erreka harrizko zubia zeharkatu eta Etxalarko herri-gunean sartuz. Metro batzuetara, auzoko karrikan, hasierako bidearekin bat egin (usatagietako igoera).
- 10,800 km: **ETXALAR** (100m), Antsolokueta auzoa. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.